

FUNTSEZKO JARDUERAK:

- Gure proiektua aurrera eramateko bizikletak sortzeko profesionalak kontratatu behar ditugu. Horretarako langile desberdinak elkarrizketatuko ditugu eta hoiien artean egokienak hartuko ditugu, honela gure langile talde profesionala eukiko dugu eta proiektua ona izango da, gainera pertsona askori lana eskeinitako diogu.

Bestalde oso garrantzitsua iruditzen zaigu eroslearekin eduki beharreko harremana, horregatik edozein momentuan deitu ahalko digute arazoren bat badute edo informazioa behar badute. Bizikleta erosterako garaian ez dira ezertaz arduratu beharko guk egingo dugulako dena. Guk eramango ditugu bizikletak etxera eta guk montatuko ditugu doainik.

Gainera, oso garrantzitsua iruditzen zaigu era egoki batean gure produktua iragartzea, bai iragarkietan bai sare sozialen bitartez. Gure bezeroekin harreman zuzenago eta estuago bat sortzeko. Honela enpresa moduan garatu ahal izateko, produktuari dagokionez eta enpresaren balore eta printzipioak hobetzeko.

Bizikletak egiteko materiala hornitzaie hoberenek eskeinitakoa da, izan ere, beraiekin behin baina gehiagotan bildu gara produktuaz hitz egiteko eta beraiek eskeinitako materiala ona zela zihurtatzeko.